Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 17a, astelehena — 113 — Lunes, a 17 de junio de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzarrak, 2019ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, hemen argitaratzen den akordioa hartu zuen, aho batez:

— Arriaga 1eko UE2ri dagokion Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 3. aldaketa behin betiko onartzea.

Aho batez onartu eta akordio bilakatu da Habitat Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

2019ko martxoaren 25ean, Tokiko Gobernu Batzarrak lehendabizikoz onartu zuen Arriaga 1 Eremuaren UE2 delakoaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 3. aldaketari buruzko dokumentua, Ideko Kooperatiba Elkarteak sustatutakoa, eta Luis Anduaga arkitektoak eta Marco Segurola geografoak idatzitakoa.

Horren haritik, hurrenez hurren, Diario Vasco egunkarian eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren iragarkien bidez ireki zen jendaurreko erakustaldian, ez da alegazioak egiteko inolako idatzirik aurkeztu.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 - 97 artikuluetan, eta bidenabar, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.c) artikuluan ezarritakoari jarraiki,

Habitat Batzordeak aldeko irizpena egin ostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurari helarazi dio, ondoko akordioak har ditzan.

*Lehenengoa.* «Arriaga 1 Eremuaren EU2 delakoaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 3. aldaketari buruzko agiria behin betiko onartzea.

*Bigarrena.* Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza antolamenduaren administrazio-erregistrora bidaltzea; batetik, behar bezala izapidetutako paperezko formatuan, eta bestetik, informatika formatuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

*Hirugarrena.* Espedientearen behin betiko onarpenari buruzko akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarietako batean argitaratzea. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN egingo den argitalpenean onartuko den hirigintzako araudiaren testu osoa argitaratuko da, hori bai, agiria Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistrora bidali eta gero.

*Laugarrena.* Akordio hau interesdunei jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu dezake interesdunak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, akordio hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik bi hileko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko Udalbatzarrari, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 23 de mayo de 2019, adoptó por unanimidad el acuerdo que a continuación se publica:

— Aprobación definitiva de la 3.ª Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE2 de Arriaga 1.

Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Hábitat:

Con fecha 25 de marzo de 2019, la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente, el documento de 3.ª Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE2 de Arriaga 1, promovido por la Ideko S. Coop., y redactado por el arquitecto Luis Anduaga y el Geógrafo Marco Segurola.

En el periodo de información pública abierto mediante sendos anuncios publicados en el Diario Vasco y el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, respectivamente, no ha sido presentado escrito de alegación alguno.

De conformidad con lo establecido en los artículos 104 - 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22.c) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

La Comisión de Hábitat dictamina favorablemente y eleva a consideración del Pleno municipal los siguientes acuerdos:

*Primero.* Aprobar definitivamente la 3.ª Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE2 de Arriaga 1.

*Segundo.* Remitir al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa un ejemplar del plan especial de ordenación urbana en formato papel debidamente diligenciado y otro en formato informático, a los efectos de lo establecido en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

*Tercero.* Proceder a la publicación del acuerdo de aprobación definitiva del expediente en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporando, en la publicación del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el texto íntegro de la normativa urbanística que se aprueba, todo ello, una vez remitido el documento al Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Cuarto.* Notificar el presente acuerdo a los interesados, en la forma legalmente establecida.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer también recurso de reposición ante el Pleno de la Corporación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se

EK\CV GAO-I-2019-03865

errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeko errekurtsoa berariaz erabaki arte edo ustez atzera bota arte.

Adierazten dugu onartutako dokumentua gordailutu dugula 2019ko ekainaren 7an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren hirigintza planeamenduaren erregistro administratiboan (Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua).

Elgoibar, 2019ko ekainaren 7a.—Alkatea. (3865)

podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación presunta.

En fecha 7 de junio de 2019 se procedió al depósito del documento urbanístico aprobado en el registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio).

Elgoibar, a 7 de junio de 2019.—La alcaldesa. (3865)

EK\CV GAO-I-2019-03865